



## GFI Norteko egoera ekonomikoari eta gure prekarizazioari buruz (V. zatia)

"2014 urtea, testuinguru ekonomikoa oraindik zaila izan arren, guretzat urte arrakastatsua izan da" (Vincent Rouaix – GFI Informatikako presidentea). Etengabeko prekarizazio laborala alde batera uzteko aitzaki bezala balio ez duen gertaera. Estatuko hitzarmenarekin kontratatzen, soldata-eskala bikoitzak eta hirukoitzak sortzen, ... eta, bestalde, Euskaltel, Lantik eta Eusko Jaurlaritzarekin milioi askoko akordioetara heltzen.

**Prekarizazioa edota lan-prekarizazioa**, lan-merkatuan eta enplegu, azpienplegu eta langabezien baldintzei dagokienez, langileen, gizarte eta baldintza ekonomikoetan segurtasun eta berme faltan datza, langileei eta euren gizarte eta familiako esparruan eragiten diena.

WIKIPEDIA <http://es.wikipedia.org/wiki/Prekarización>

Ziurgabetasunarekin bizi gara. Zenbaitetan, erantzunak aurkitzea kostatzen zaigu, enpresak egiten duena zergatik egiten duen eta zein helburuarekin egiten duen jakitea kostatzen zaigu. Gutako gehiengoak, ELA atala bezala, urte asko daramagu egoera hauek pairatzen eta praktika hauen inguruan argi pixka bat ematea nahiko genuke.

### Langilea baliabide ekonomiko simple bat bezala

Enpresarentzat kostu bat duzula ulertu behar duzu. Eta zurekin irabazten dutena eta kobratzen duzun eta gizarte-segurantzari ordaintzen dioten arteko diferentzia zure **errentagarritasun-marjina** da. Errentagarritasun-marjina handiagoa denean, erakargarritasun handiagoa duzu enpresarako. Zenbat eta gehiago ordaindu behar dizutenean, zure errentagarritasun-marjina txikiagoa izango da eta erakargarritasun gutxiago izango duzu enpresarako.

Kontratazio berriak oinarrizko soldata baxuagoak dituen hitzarmenarekin egiten ari dira eta, hortaz, errentagarritasun-marjina, teorian, handiagoa da (Estatuko hitzarmena) eta enpresari langilearekin nahi duena egitea baimentzen dion kontratuko eranskinekin\*\*. Zenbat eta antzinatasun gehiago izan, orduan eta erakargarritasun gutxiago izango duzu enpresarako. Zure kontratua Bulego eta Langeletakoa bada, erakargarritasun gutxiago izango duzu enpresarako. Eta abar.

### Balantze ekonomikoen inguruan

Legeak GFI Nortek konpainiako urteko balantze ekonomikoak enpresako batzordeari eman behar dizkiola ezartzen du. **Hauxe, GFI Nortek beti berandu eta txarto egiten du.** Zertarako? Enpresa ondo doala ezkutatzeko eta enpresako benetako egoera jakitea zailagoa izan dadin, horrela egin diezazkiguketen murrizketen aurkako argudioak ez eukiteko.

Bestalde, GFI burtsan kotizatzen duen enpresa bat da\*\*. Akziodunak ditu. Eta akziodunak beraien akzioak nola igotzen diren ikusi nahi dute. Beste era batera esanda, akziodunen aurrean berri ekonomiko onak eman behar dira eta langileen aurrean txarrak.

### Konklusioa

GFI Nortek emandako kontuetan 2013an **422.000€ gaitzen dugu** baina **taldeko beste entitateei 2.700.000€ko, gutxi gorabehera, emandako mailegu bat mantentzen da.**

2014an, Euskalteleko proiektuak 45 milioi euro 7 urtetan emango dio konpainiari eta bere negozio-kopurua 23 milioi eurora arte handituaraziko du\*\*. Ez dakigu nolako kontuak aurkeztuko dizkiguten, baina Frantzian esaten dutenaren arabera\*\* eta egindako kontratazio-kopurua ikusita\*\*, **GFI Nortek lan-baldintza duinak izateko eta, behintzat, Bizkaiko Bulego eta Langeletako Hitzarmenaren baldintzak mantentzeko aski positiboak izan behar direla uste dugu.**

### \*\* Artikulurako bildutako informazioa

#### Egindako kontratu batzuk (links)

Informazio-sistema sektorialetarako Asistentzia Tekniko Profesionaleko zerbitzu kontratazioa: **3.504.000€ (2015eko urteko zenbatekoa: 1.752.000€).**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailaren aplikazio informatikoen Garapen eta Mantentze zerbitzuaren prestazioa, Zerbitzu Maila Akordio (ZMA) modalitatearen azpian eta hiru urteko aldi batean zehar: **5.785.500€**

#### Fakturazioari buruzko intereseko datu batzuk (links)

Saint-Ouen (Frantzia), 2014ko abendu 04a, Gfi Informatique, 2014ko hirugarren hiruhilekoan zehar erregistratutako datuak, 192,6 milioi eurotako ehuneko 11,7tako bere jardueraren igoera bat.

Europako hegoaldea (negozio-bolumenaren %10): Espainia 16,2 M€-ekin erregistratuta + hirugarren hiruhilekoko %10,5-eko hazkunde organikoan + lehen 9 hilabeteetako %6,1, bereziki, Euskalteleko outsourcing kontratuaren bidez bultzatuta.

GFI Nortek 2014an 23 milioi euro inguru fakturatzea espero du.

### 2015eko lan-egutegiak

**Urtarrilaren 1etik aurrera langile guztiok gure urteko lan-egutegia izan behar dugu**, eta lan-egutegi horretan esaten dira egiteko ordutegiak, jaiegunak, ... eta hauek rrrh-ak emandakoaren desberdinak izango balira arduradunak lan-egutegi berria emateko pertsonak dira. **Horrela ez bada, "Gfi-ko nosotroz" webean** (gure erabiltzaile kodearen eta pasahitzaren bidez) **kontsultatu eta deskargatu daitekeen lan-egutegia da bete beharrekoa eta** geroago eskatzen den **edozein aldaketak** ordutegian, jaiegunetan, lanaldian edo beste arlo baten **baldintz laboreko funtsezko aldaketa suposatzen du**, legezko inplikazio guztiekien (jakinarazpen-epeak, negoziaketa, ...).

### MC-prevencion-eko inkesta

Joan den urrian, arrisku psikosozialak ebaluatzeko inkesta bat egin zen MC-prevencion-aren bidez. Langileen %48k parte hartu du, beraz, MC-prevencion-ek ez du inongo neurrik hartuko, izan ere, bere ustez, ez da % adierazgarri bat. Txosten bat bidaliko digu emaitzekin eta denbora gutxi barru hauen berri emango dizuegu.